

EUROPAREN MUGIKORTASUN ASTEA, 2023

MARRAZKI LEHIAKETARAKO OINARRIAK

Antolatzailea: Hondarribiko Udala

Kale Nagusia 20, 20280 Hondarribia

1- GAIA

Ametsetan... nolakoa izango litzateke zure eskolarako bidea?

2- HELBURUAK

Lehiaketa honek haurrak hirietan modu seguru, iraunkor eta osasungarrian mugitzearen garrantziaz ohartarazi nahi du, horien irudimena sustatzearekin batera.

Mugikortasuna hobetzeko, ezinbestekoak dira portaera eta jarrera zehatzak:

- Seguruak: istripuak saihesteko
- Jasangarriak: ingurunea zaintzeko
- Osasungarriak: aktibo eta osasuntsu egoteko

Horregatik, **ikasleei gustatuko litzaekeen eskola-ingurunea eta eskolarako bidea hobetzeko proposamenak ezagutu nahi ditugu.**

3- PARTE-HARTZAILEAK

Hondarribiko eskoletako LH3, LH4, LH5, LH6 eta DBH-ko ikasleak.

4- LANAK

- Aurkeztutako lanak **originalak** izan behar dira.
- Pertsona bakoitzak **marrazki bakarra** aurkeztu ahal izango du.
- Aurkeztutako marrazkiak **edozein teknika erabiliz** egin daitezke: argizaria, akuarela, koloretako arkatzak, ikatz-ziria eta abar.
- **DIN A4** tamaina
- Atzealdean parte-hartzailearen datuak idatzi: **izen-abizenak / ikastetxea / ikasmaila**. Ezinbestekoa izango da datu guztiak jartzea, bestela marrazkia lehiaketatik kanpo geldituko da.

5- GARAPENA

- Marrazkiak egiteko epea: **irailaren 15etik 22ra**. Eskola-orduetan egitea proposatzen da (lana ikasleena izan dadin eta ez familiena)
- Irailaren 22an marrazkiak jasoko ditugu ikastetxean.

- **Erakusketa** bat antolatuko da liburutegian jasotako marrazki guztiekin. Astebetetz ikusi ahal izango da (irailaren 22tik 29ra)
- **Irabazleak irailaren 22an** bertan aukeratuko dira, eta horren berri emango zaio dagokion ikastetxeari, saritutako ikasleari jakinaraz diezaioten.

6- SARIAK

Sariak hiru kategoriatan banatuko dira **eta irabazle bana aukeratuko da bakoitzeko** jarraian adierazten den moduan:

- kategoria: LH3 eta LH4. Saria: patinetea eta kaskoa
- kategoria: LH5 eta LH6. Saria: patinetea eta kaskoa
- kategoria: DBH. Saria: bizikleta eta kaskoa

Sari-banaketaren eguna eta tokia aldez aurretik jakinaraziko zaie irabazleei.

7- EPAIMAHAIA

Hondarribiko Udal ordezkari bat eta enpresa laguntzailearen ordezkari bat.

8- SARITUTAKO LANAK ARGITARATZEA

Saritutako lanak Hondarribiko Udalaren web orrian, komunikabideetan eta sare sozialetan argitaratuko dira saridunen izen- abizenak, ikasmaila eta eskolaren izenarekin batera.

9- OBREN ITZULTZEA

Nahi duenak bere obra berreskuratu dezake. Horretarako oharkitaldea@gmail.com helbidearen bitartez kontaktuan jarri beharko da 3 hilabeteko epean.

10- ERANTZUKIZUNA

Erakunde antolatzaileak ez du erantzukizunik izango halabeharrez ekintza honen exekuzioaren ondorioz izandako gorabeheretan.

11- DATUEN BABESA

Kasua bada, lehiaketa honetan erabili daitezkeen datu pertsonalak bakarrik lehiaketarako eta erakusketarako erabiliko dira; ezin izango dira fitxategi batean gorde edo bestelako helburuetarako erabili. Edozein kasutan pertsonak erabili ahal izango dituzte haien datuen eskuratze, aldatze, baliogabetze eta aurkaratze eskubideak erakunde antolatzaileari goian aipatutako helbidera zuzendutako eskabide idatziaren bidez. Erabiltzaileak onartu egiten du eta adostasuna ematen du bere datu pertsonalak argitaratzeko eta hedatzeko (izen-abizenak, ikasmaila, eskolaren izena eta marrazkia) lehiaketaren parte hartzaileak badira.

12- LEGERIA ETA ESKUMENA

Oinarri hauek arautzen dira espainiar legearen arabera -aldeak beharrezko jurisdikzioaren mende jartzen dira indarrean dagoen araudiaren arabera-

13- ESKURAGARRITASUNA

Oinarri hauek www.hondarribia.eus-en daude eskuragarri.

14- IRUDIEN ERABILPENA

Lehiaketara aurkeztutako marrazki guztiak Hondarribiko Udalaren esku geldituko dira, eta mugikortasun jasangarriaren sustapenerako udalak dituen komunikazio-kanaletan erabili ahal izango ditu. Beti ere, irabazi asmorik gabe eta egilearen izen-abizenak aipatuz.

Era berean, jakinarazten da irudiak hartzea eta zabaltzea bat etorriko direla Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoarekin eta lege hori garatzeko erregelamendua onartzen duen abenduaren 21eko 1720/2007 Errege Dekretuarekin.

15- ONARPENA

Lehiaketa honetan parte hartzeak oinarri arautzaile hauek ezinbestean onartzea dakar, eta gerta daitekeen edozein ezustekoren aurrean, antolakuntzak erabakiko du, eta ezin izango da erabaki horren aurka apelaziorik aurkeztu.